# EUSKO - BASEŔIA. - Auŕerapenak baztertu dituan oiturak

Eguna azkenetan dago, eta baseŕitaŕak bere lugin-lanetan lagundu dautson ipuzteŕiari nozipein esaten dautson ¡Aida! entzuten da.

¡Oldoztu eragiten daben il̄unabaŕ edeŕa, eta espain-luŕalde oneitako ikuspegi ta biztanleak zeinduten dituana!

Uŕiñera eleizako kanpai otsak Abemarietakoa iragarten entzuten dira, ta zaŕ, gazte ta umeak beleunikotuten dira Jaunari eskeŕak emon eta laguntza eskatzeko.

Apur bat gerotxoago, baseŕira biurtzeko bidea artzen da, bakezko ixultasunez, burdian-kiŕinka ta baseŕitaŕaren ¡aidak! eresitzat dabezela.

Etxeko sukaldera uŕeratuez doyaz. Amandreak dauko bere ardura, gurasoei lagun netan laguntzeko ondiño txiki diran il̄obatxuak inguruan dituala. Bizileku apala baña begikoa. Bertan lagun eta abereak sendi bat lez egiten dabe. Gizonaren lagun diran beyak, Jesus'eri emon eutxoen lez, etxeari beroa emoten dautse, eta ondo zaindutako kortan euren uŕumakaz baseŕi-etxea atsegingaŕi egiten dabe.

Soloko lanak amaituta, etxekoak asten dira, baseŕitaŕak ba euren zindotasunaren oñaŕitzat euren siñeste l̄a lantzaletasuna dabe. Erlejiño ta lan-batasun onetatik sortzen dira zoriona ta kristinau-entzute ona sendiari emoten dautsozan izakera on eta zintsoa.

Bien bitartean, bazter baten amonatxoa ikusten da, aingerutxo bat lo gozoan dagon seaskaren ondoan lo-lo zortziko biotzkoi donuagaz abestuten.

Apal orduan etxekoandreak mai lakaŕ gañean jateko bear diran gauzak ipinten dauz, gela erdian ontzia ipinten ezpada, eta inguruan sendi gustia yarten da. Amandre ala etxekoandreak artzen dabe Eŕosario donearen ardurea. Ikasbide emonaz belaunikotuten da, eta sendi gustia, lekaide edo pral̄e batzaŕa ba'lira lez itzalik andienaz otoitz egiten yaŕaitzen dau, Ama-Birjiñaren letaniakaz amaitu arte.

Agurtza edo eŕosarioa amayeran, euren yarleku latzetan yarten dira, uriko norbaitzuentzat ez yarleku erosoak, eta minuto gitxitan amaitzen dabe euren apari uŕia.

¿Ze uritiko aukera bere baseŕian ez dabenik opa izan legiz baseŕitaŕak?

Etxe berokiñik ez dabela egia da, baña tximini zabal azpian eten barik gaŕetan dagozan enboŕak euren gorputz osasuntsuak giroa galdu ez dayen naiko bero emoten dautse bide batez aizea berezko luŕinkai gozoz betetan dabela.

ŕezko berokinak. Radioa eŕuz zabaldu da, eta len bakez inguratuta egoan etxe-baŕua, gaur gizon eta emakumek batera abestuten dabezan eresi baŕien durunduak nastuten dabe.

Txistuaren soñu zolia lengo zaletasunaz ez da entzuten, ori baseŕitaŕena da, eta gorputz eta gogoz zindo diran baseŕitaŕ banakak baño ez diran gelditzen. Txapela ayenatuez doa, ta baseŕitaŕa uritaŕagaz bardintzen daben burutzik yoatea zabaldu da, xamaŕa baŕiz antxiña yoan zan. Gaurko baseŕi taŕei ondo yantzi ta oñetako edeŕakaz ibiltea atsegin yake: «rubioak» eŕe ta «vermouth» edaten dabe.

Eta baseŕitaŕ neskatil̄ak abarka eta abarketa



Apalondean jardun aldi mamitsua. Geyen aitonaren itza entzuten ta itzal andiz entzun be gustiak, baña asi baño len nagusiak igeltzozko pipa zuria tabakoŕiz bete eta tiraka asten da ara ona ke moltsoak zabalduaz ingurubiĺean gorantza igonaz baseŕi bizitzan ikasten dan yakituri, lautasun eta bakea adirazten dabalerik.

Itzaldi gayak era askotakoak izan oi dira: lugintz zintsotasuna solo ta abereen ardurea... Baita sendi edestia, oituren aldaketa, Eleizari zor yakon itzala, oitura onak zaindu beaŕa, bein eta biŕitan azaltzen dira baita ipuñak, yazokunak eta ixuŕiak...

Baseŕia da, kristiñau sendiaren ondasuntegia gordetan dabe kutxa. Baseŕi-etxea ikastola bat da, gizartea ezagutzeko ĺain an ikasten da azi ona ereiñaz, eta batez bebaseŕi senditik Jaungoikoari eskeŕak emon eta goraltzeko etenbako otoitzak zerurantz zuzentzen dira.

* * *

Baseŕia len zer izan zan, gomutauaz ames apur bat egin dogu. Oin urte gitxi/rarte goyan azaldu dogun lez izan zan. Gustiok ain ondo ezagutzen doguzan irudi areik: amena iĺobatxoz inguruturik aterian gorua eskuetan dabela, aitona pipakada kez ingurututa, yakitun eran oldozten sendiari egunoroko jardun-aldirako gertatzeko; ori, zorotxaŕez galdu da.

Gaurko baseŕiak ez dira aldi bateko kristiñau baseŕitar sendien bizileku apalak, baseŕi etxeak uri nausiko aukerakaz baño. Gaur egunean izpi-berokiñak ezpadagoz be, ba'dira ikatz ala tximist-inda-



ordez topolino deritxoen oñetakoak eta kristalezko galtzerdiakaz agertzen dira, txiŕinkuts edo bizikletearen zale dira, oŕegaz uŕiñak uŕeratu eta eta len baseŕi-etxeko bizitza eroaterá beartzen ebezan eragozpenak aspiratzen dabazalako. Txistua ezetsi ta ereskintzak gurago dituez.

Erlejiño ta oitura onen sentzuna ondatu da, eta oŕegaz batean era gustietan gizonen eredu egiten zituen kemenak galduta, euren zabarkerian uri nausikoakaz bardindu dira.

Auxe da gaurko baseŕia, baseŕitaŕen bizi ta sentzuna, eta oŕegaz eŕkien berezitasunak, ain erakarkoŕ eta begikoak galduez doaz, ba endatasuna zaintzea eŕki bakoitzaren onbideen agerkai zan, gustiak dira ba ain aberatzak gogo ta oiturazko ondasunetan.

*Trad. P.º Gabriel de Manterola.*

# EDURTZA

POR EL R. P. GABRIEL DE MANTEROLA

TRUMOI durunda, ortzea il̄un,
Edur malutak ondoren,
Lumen antzera yolas-yolaska
Ugari dakustaz yausten.

Txori gaxoak iges bildurti,
Umeak pozez begira,
Zugatz adaŕak beingo batean
Zuriz apainduten dira.

Ordu gitxitan mendi gal̄uŕak
Aldatz, zelayaz batean,
Izara zuri zoragaŕiak
Artu dauz bere menpean.

Uŕundik dantzut aŕanen otsa...
Artzañak datoz igesi,
Ardi kikil̄ak yanaritzeko
Alde dagie menditik.

Edur malutak yausi ta yausi
Gero ta ugariago,
Tel̄atu eta etxe inguru
Margotuaz zuriago.

Leyo baŕutik ikusgureaz
Zar eta gaste begira,
Lauso artean edur pul̄aka
Gasteak ikusten dira.

Lapur antzera ixil̄ik daŕai
Eduŕak bere lanean...
Lurmen bilder bat ez dot ikusten
Uŕean ez uŕiñean.

Tarteka, nonbait ikusgureaz,
Eguzkik laño artetik
Begiratzen dau, erdi bildurti
Eskutatzeko bertatik.

Gaba eldu da. Ixiltasuna...
Sendiak goiztar oera,
Eduŕa baŕiz atseden barik
Yausi ta yausi luŕera.

Goizez eduŕa gizenik dago,
Leyo leyaŕak lausorik,
Txori gaxoak eŕuki eske
Bertan dakustaz otzanik.

Gizon naiz pizti otzanduteko
Ez da goxea langorik...!

Ogi bildeřak botaz batean
An dira bizkor txoriak,
Begiak zoli, erdi egazka
Garbitzen apur gustiak.

Baseřietan sutzar inguru
Aiton zařa iĩobakaz,
Adi begira dauzala danak
Edurte-ipuin zařakaz.

«Gaste nintzala yoan nitzan bein
Basa-beyetan mendira...
Pozik nengoan erdi leituta
Eldutakoan etxera.

¡A zan edurtza! ¡A zan aizea!
¡A zan otsa ta gosea!,
Nekez aulduta, noraezean
Galdurik neure bidea!

Batean sartu, bestean urten
Yo batera ta bestera,
Gelditu nintzan adore barik
Ez auřera ez atzera.

Zurien-zuriz begiak lauso
Galdurik kemen gustia,
Sama-goiraño edur bařuan
Ia galdurik bizia!

Gerotxoago uřean dantzut
Gure «Zoli» ren auzia,
Andik lastertxo neure anayen
Eupada dedar bizia.

Poz-ikotika nire biotzak
Baturik indar gustiak,
«Ementxe ñagok» erantzun eban
«Ementxe anai maiteak».

An ziran laster, «Zoli» auřetik
Buztanari eraginaz,
Nire anaya Anton ta Mikel
Maitasunezko laguntzaz.

Nik artu neban pozaren-poza
Ezin neike oin azaldu,
Biotz taupaden indar bařiaz
Laster nintzan otzaz aztu.

Nekez ba'zan be danok batean
Nozbait yo gendun etxera,
«Euup...!» didar baten estu ziranak
Urten euskuen bidera.
Egundo bere ez yat aztuko
Egin eustien ařera.

A zan poza ta nasaitasuna
Artu ebena gustiak,
Besarkatuaz aita ta ama
Ta neba-ařeba maiteak.

An egon nintzan urten eziñik
Basurde iŕintzak entzuten
Aŕano baltzen «krak» «kark'z batera
Ardi galduak bil̄atzen.

Aize txistua kendu ezkero
Eriotzako ixil̄a,
Alde danera begiratuta...
Iñortxo ez nire bil̄a...

Uste neban nik une aretan
Egin ebala nireak,
Ezpaninduen lagundu laster
Zeruko Ama maiteak.

Estu ta laŕi gora begira
Gorbei'ko Gurutz Deunari,
Andra Mari'ren bidez eskatzen
Laguntza Goico Yaunari.

Maite damua egiten nengon
Neure oben danakaitik...
Eta onetan... neure izena
Didar egien uŕundik.

Yaso yatana edustu neutsen
Adi ziran aŕiturik,
Zelan zeruko Ama maiteak
Zaindu ninduan bizirik.

Yantziz aldatu, esne beroa
Gogoz edan nebanean,
Baŕituta lez gelditu nintzan
Yaŕirik neure senean.

Eskaŕon biziz Agurtza Deuna
Esan genduan biotzez,
Gero gustiok oeratuta
Atsedendu gendun bakez.

Ordutik ona eduŕa yausten
Dakustadan bakotxean,
Beartsuakaz gomitatzen naz
Esanaz neure artean:

«Eduŕa zuri, polit benetan
Gorputzeko begientzat;
Baita be baltz ta biotzgabea
Zoritxaŕean danentzat».

*R. P. Gabriel de Manterola*

Zeanuri'n 1954 'n Otsala'k lenengoetako edurte andian.